



# Haziak idazle 2026: hitzak dantzan



## LEHIAKETAZ BI HITZ

2016an Euskal Haziak elkarteak ipuin idazketa lehiaketa bat sortu zuen. Aurten lehiaketa horren 11.edizioa da. Eskola, kolegio eta lizeo elebidunetako ikasleek parte har dezakete lehiaketa horretan. Lehiaketa horretan 4 sail dira:

3.zikloa (CM1 - CM2 - 6.), 4.zikloa (5. 4. 3.) eta 5.zikloa (2. 1. Terminala) eta gurasoen saila.

### LEHIAKETAREN HELBURUAK:

- Ikasle bakoitza hizkuntzaren ikasketan lagundu, idatziaren ekoizpena garatuz. Kontakizun oso bat idatzi behar da, sarrera eta bukaera proposatuz, testu egituratu batean, zatietan edo paragrafoetan ordenatua.
- Ikaslearen irudimena eta idazteko gogoia sustatu.
- Euskaraz irakasten duten irakasleen arteko lotura indartu, lehen eta bigarren mailaren arteko elkarlana bultzatuz, zikloka lan eginez.
- Irakaskuntza katolikoko sail elebiduna argitara eman. Helburu nagusietarik bat diteke **Euskal Haziak** elkartearen ezagutaraztea

Frantziako Hezkuntza Nazionalako 3 zikloko programa berriek diote :

*Ikasketa helburuak/Objectifs d'apprentissage :*

- *Découvrir et expérimenter des situations variées d'écriture : résumer, synthétiser.*
- *Écrire très fréquemment des textes personnels (donner un avis personnel en le justifiant, produire un écrit narratif, expliquer une démarche, etc.).*
- *Utiliser le brouillon pour préparer son texte.*
- *Respecter les codes de l'écrit.*
- *Veiller à la cohérence textuelle.*
- *Améliorer tout ou partie de son texte à partir de son autoévaluation et/ou de pistes données par l'enseignant et ses pairs.*
- *Prendre en compte les normes de l'écrit pour réviser un texte.*
- *Produire un récit complet, comportant une ouverture et une fermeture, cohérent et structuré en paragraphes.*

## LEHIAKETAREN EGUTEGIA:

- 2026ko otsailaren 2tik goiti: irakasleek beren ikasleer lehiaketa ezberdinak eta parte hartzeko baldintzak aurkezten dizkiete.
- 2026ko apirilaren 3a, ostirala: Azken epea, lanak Euskal Haziak elkarteari helarazteko, mailez edo irakasleen bidez.
- Irakasleek, beren geletan aurrehautaketa batzuk egiten dituzte, sail bakoitz 4 testu igorritz gehienez (adibidez, 4. zikloan, 4 taldeka, eta 4 bakarka. 3.zikloarentzat, eskola eta kolegioaren artean zatitua izanki, 4 testu gehienez CM1-CM2koentzat, eta 4 gehienez 6.ekoentzat).
- 2026ko apirilaren 7tik maiatzaren 7ra: Euskal Haziak elkarteko irakurketa taldeak hoberenak sailkatzen ditu, epai-mahaiari azken sailkapena eginarazteko.
- 2026ko maiatzaren 11tik maiatzaren 15era: epai-mahaiko kideek sailkapen definitiboak egiten dituzte, beren erabakia Euskal Haziak elkarteari helaraziz.
- 2026ko ekainaren 9an, asteartea: sarien banaketa Euskal Haziak elkarteak antolatzen duen animazioan.

## SARIAK:

- Ziklo bakoitzean, bakarkako eta taldekako 3 testu hoberenak sailkatuak eta saristatuak izanen dira. Orotarat, 6 sari ziklo bakoitz.
- Bestalde, sari bat eskainia izanen da helduen lan hoberenari.
- Sailkapena ekainaren 9an aurkeztuko da eta egun berean sariak banatuko.

## EPAI-MAHAIA ETA IRIZPIDEAK :

Epai-mahaiak irizpide horiek erabiliko dituzte testuen sailkatzeko:

- Deklinabideak, aditzen jokadura, aditza aldien koherentzia eta hiztegiaren aberastasuna.
- Narrazioaren 5 urratsen erabilera, irakurlearen interesaren sortzea, originaltasuna.
- Gaiaren errespetua, koherentzia hasierarekin, hitz kopurua eta formaren errespetua.

## LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ARAUAK

- Lanak bakarka edo taldeka egin daitezke (gehienez **4 ikasle taldeka**).
- Testuaren hasiera irakurtu behar da ipuinaren jarraipena sortzeko edo irudiak balaitu testu baten osatzeko.
- Ipuinak ordenagailuz idatzia izan behar du : Arial, Times New Roman edo Garamond letra-tipoan, 12 neurrian, lerroarte 1,5. **WORD formatuan** bidaltzen dira.
- Hitz kopuru hau errespetatu behar da idazlanetan (hasieran diren hitzak kontuan hartu gabe):
  - 3.zikloa: 150 hitz gutienez

- 4.zikloa: 250 hitz gutienez.
- 5.zikloa: 300 hitz gutienez.
- Burasoak: 300 hitz gutienez

Testuak ez ditu **3106 karaktere** baino gehiago ukanen. *Zergatik 3106? Euskal Herrian 3 106 000 biztanle garelako.*

- **Ikasleek** ipuinari **titulu bat** eman behar diote eta xehetasun horiek bukaeran : egin moldea (taldeka edo bakarka) , hitz kopurua , zikloa . Kasu! Izenarik ez!
- Laburpen-taula baten eredia irakasleari aparte bidaltzen zaio: **taula osatzen** du xehetasun guztiak sartuz (**2 erlaitz/orrialde dira**) :

Lehen orrialdean :

- Ikastetxearen izena /herria/ irakaslearen deitura
- Testuaren titulua
- Egin moldea (bakarka edo taldeka).
- Idazleen izena(k)+ deitura(k)
- Maila + Zikloa
- Testuaren hitz / karakteren kopuruak


Bigarren orrialdean:

- Parte hartzaileen kopurua klaseka

**Testuak eta taulak berantenez 2026eko apirilaren 3rako bidali behar dira e-postaz:**


[euskalhaziak@gmail.com](mailto:euskalhaziak@gmail.com)

**Xehetasun gehiagorentzat, deitu : 07 72 55 63 53**



### 3. zikloko ikasleak: CM1, CM2, 6.

Lau marrazki horiek ordena batean ezar itzazue eta ipuin bat asma. (150 hitz gutienez).



## 4 zikloko ikasleak: 5., 4., 3. Kolegioko ikasleak

Ipuin bat, eleberri labur bat edo testu bat idatz ezazue, marrazki hortarik abiatuz

(250 hitz gutienez).



## 5. zikloko ikasleak 2., 1., Terminala Lizeoko ikasleak

Ipuin bat, eleberri labur bat edo testu bat idatz ezazue, marrazki hortarik abiatuz

(300 hitz gutienez, 3106 karaktero gehienez).



## Gurasoak, helduak

Ipuin honen segida idatz ezazue, istorioa asma ezazue « *haiku* » hortik abiatuz

(300 hitz gutienez, 3106 karaktero gehienez).

Aitaxiren irribarrea,  
haurren irria  
musu bat eta ni

